



# Final-laurdenetan da HITZA Pilota Txapelketa

**IBILBIDEA** ▶ Orain arteko ibilbidea «ezustekorik gabe» garatu dela azaldu dute antolatzaileek

**BEREZIA** ▶ Aurten maila berria jarri da, profesionaletara pasatzeko dauden gazteena ▶ 5

**JON KANFLANKA** ▶  
SEGALARIA

«Ikasten ari naiz eta probatzera noa»

Leitzarrak bihar du lehen saioa ▶ 7



**IBARRA** ▶

## Gipuzkoako II. Mailako Aizkolari Txapelketa izango da etzi

Xeplak antolatu du bere 25. urtemugan; Erasun, Elorriaga eta Otaño dira faborito ▶ 6



Juan Manuel Erasun. UURREAGA

## Peñaren Guinness saiakera Usabalen

**TOLOSA** ▶ Carlos Peña igerilari tolosarrak Guinness errekorretan sartzeko ahalegina egingo du Usabalgo kirolgunearen inaugurazioan, irailaren 24an. 24 orduz bizkarrez igerian ariko da eguerdian hasita. «Desafio zaila» izango dela azaldu du igerilariak eta denen parte-hartzea nahi du festan, ikastetxeek, elkarteek eta herritarrek ere bere ondoan igeri eginez txandaka. Argazkian, Carlos Peña Andoni Imaz zinegotzia eta 750. Urteurrena fundazioko Miguel Izagirrearen artean. LEIRE MONTES ▶ 2

**TOLOSA** ▶

**Atleta infantilek domina ugari lortu dituzte**

Euskadiko Txapelketan izan dira ▶ 3

Errementari kalea z/g  
TOLOSA  
Tel.: 943 67 16 30  
**NEREA**  
LENTZERIA  
1954

**Trikiniak, bainujantziak, hondartzarako kamisolak**

**XI Salón Internacional de Vehículos Clásicos**  
11/12 Junio XI Itzualdi Klasikoan Nazioarteko Erakusketa  
2005

**TOLOSA**

ANTIGALDIA MUTUAK OREA ZARRITZA. Calentado 19.00. Antik  
"CAR" ERAKUSTALDIA. Lanbata 17.00 orduan.

**INSALUS**

## GUTUN@K ▶

▶ izena eta herria adierazi; HITZAK gutunak mozteko eskubidea du

## Antxon de Pedro

Gure kale musikaren erreferente nagusienetakoa galdu berri dugu. Hizki txikiz idatzitako musika handiaren mugarria oharkabean gure historia bihurtu da.

Berdura plazako txarkuteroak, eskusoinu diatoniko xahar eta hamaika aldiz konpondutakoak, momentuan momentuko bere sentipenak Tolosako kale bazter eta zokoetan eskeintzen

jardun zitzaigun gazte-gazte-tandik.

Umore finez jantzia, goxotasun erakargarri hurbildu ohi zen kale eta tabernetan jendartera. Berdin aukera eta jo zezakeen pieza bat; txikitero koadrila, dendaria prestu, etxe-koandre edo kale kantoian muxukatzen ari zen bikote gaztearentzat.

Nik, eta pentsatzen dut beste askok ere, mirespenez entzuten genuen, ez baitugu inongo

kontserbatorio edo ikastaro famatutan horrelako maisu eskolarik jaso. A zer aberastasuna berea, sostenido eta bemolen beharrik ez zuen, hauspo arrunt baten laguntzarekin, barruan zeraman edozein doinu birsortzen zuen.

Sekula ariketa berezietan trebatu gabeko langile, harrakin, hatz haiek, edozein mota-tako aireak eskaini zizkiguten, soina buru gainean edo edonon astintzen zuen bitartean.

Bat-bateko entzulegoa, oilo apurdia disimulatu ezinean edo malkoren bat aurpegi masaileen ezkutatu ezinean jartzeko, ez zuen gehiegi behar. Grazia handiz bere gorputz eta gerria musikarekin dantzazten zue-nean azkar asko kutsatzen zuen ingurua ere.

Behin, Gorritiren 1884 *Opereta* atontzen ari nintzela, berarekin arratsalde osoz Iñaute musikari buruz aritzea egokitu zitzaidan, bukaeran eta jakin-

tsuenek ohi duten antzera berak musikaz ezer gutxi zekiela azpimarratu zidan eta hobe-beharrez sikiera menperatzen zuen zerbaitekin etxera nendin nahi izan zuen: jubilatua egonagatik harategia ireki eta eteko saltitza amaigabea oparitu ez zidan ba.

Ondare paregabe hortatik guztiatik jaso ahal izan zuen herrikide batengandik eskerrik beroenak.

MIGEL ZEBERIO ▶ TOLOSA

## IGERIKETA ▶

## Erronka eta festa Usabalen

24 orduz bizkarrez igerian aritzeko Guinness saiakera egingo du Carlos Peñak, Usabalen inaugurazioan, irailan; herritarrek ere parte hartu ahal izango dute

## LEIRE MONTES

Nazioartean erakutsi ditu azkenaldian bere balentriak Carlos Peña igerilari tolosarrak. Baina oraingo honetan jaioterrian bertan ekin nahi dio erronka berriari: 24 orduz jarraian igerian bizkarrez aritzen saiatuko da, eta Guinness errekorra ezarri, hala. Atzo bertan eman zion prentsari bere asmoen berri, eraikitzen ari diren Usabal kirolgunean.

Bertan, kirolgunearen barruko igerilekuan, erdiko kalean, egingo du errekor saiakera Peñak, Usabal kirol eta aisialdi gunearen inaugurazio egunean bertan: irailaren 24an hasiko da igerian, 12:00etan, eta irailaren 25ean amaitu, ordu berean.

«Desafio zaila» izango dela dio tolosarrak: «Egun batean egin dudana esperientziarik gogorra izango da, ziur. Aurre-ratu dudana jakitea oso zaila egingo zait, igerilekuaren tamainak zaildu egiten baitu guztia, ez da ibai batean aritzea bezalaxe». Dena den, gogotsu dago: «Herrian bertan aritzeak bereziki motibatzen nau, polita izango da jendearen babesa sentitzea».

Apenas hartuko du gelditzea betarik. «Geldiuneak baino, anoa guneak» izango dira, eta ez du 10 minutu baino gehiago erabiliko horretarako. «Inaki Arratibel medikuaren agindua jarraituko ditub».

Tolosa 750. Urteurrenaren ekitaldien barruan egongo da Guinness errekor saiakera, eta igerilaria eta Erronka-Tolosa lan taldea eta Udala lankidetzan ari dira dagoeneko. «Carlosi berari bururatu zitzaion erronka berri hau ospakizun-



Carlos Peña, Usabal Kirol eta Aisialdi gunean, atzo, Erronka-Tolosa taldearen elastikoarekin. LEIRE MONTES

nen barruan sartzea, eta atsegin handiz esan genion baietz proposamen horri», azaldu zuten Andoni Imaz Kirol zinegotziak eta Miguel Izagirre Tolosa 750. Urteurrenaren fundazioko ki-deak.

## Herritarren parte-hartzea

Denera, gutxi gorabehera 50 kilometro egingo dituela aurreikusiko du Carlos Peñak. «Ikusi beharko da, dena den, nola moldatzen naizen», zioen, zuhurtziaz, saiakera berria aurkeztean. Urpeko jardueren Euskal Federazioko epaileek jarraituko dute igerilariak egindakoa, eta sorosle eta beselako zerbitzuak ere izango dira Usabalen.

Peñak, dena den, ez du bako-rrik igeri egingo. Hark ez du nahi, behintzat. Bere erronka festa bihurtzea gustatuko litzaikeelako. Izan ere, bi helburu ditu ekimenak: «Alde bate-tik, erronka bera dago. Eta, bestetik, festa. Ahal den jende gehienak parte-hartzea nahi dugu, eta lagun eta ospakizun giroak irabaztea».

Igerilariak bere saiakera egi-ten duen bitartean, herritarrek ere igerian jardungo dute igerilekuaren beste kaleetan: «Ikastetxeak, elkarteak eta, oro har, herritar guztiak parte-hartza animatu nahi ditugu, denon artean ekimen hau festa bihurtzeko», zioten Udaleko eta Fundazioko ordezkariak. 1.000 lagun inguru animatuko

direla aurreikusiko dute antolatu-zaileek.

Igerian aritu nahi duenarentzat zabaldu dute dagoeneko izen-emate epea. Bi eratara egin daiteke eskaria: Kultur Etxera joz, 09:30etik 13:30era eta 17:00etatik 19:00etara (943 67 03 83), edo internet bidez, www.tolosa750.net webgunean.

Izena ematen duen bakoitzari postaz bidaliko zaio behin-betiko igeriketa ordua, noiz aritu beharko duen jakin dezan. Dena den, interneten ere ikusgai jarriko dituzte behin betiko zerrendak, Fundazioaren webgunean, hain zuzen ere. Igerilari bakoitzak diploma bana jasoko du proba amaitzean, orolgarri gisa.

## OINARRIAK ▶

- ▶ Zazpi kale erabili ahal izango dira: lehena, ikastetxeentzat; bigarrena, elkarteentzat; hirugarrena, aletak igerilariarentzat eta triatletentzat; eta gainontzeko hirurak pertsona ororentzat.
- ▶ Ikastetxe zein elkarteentzat orduka gordeko dira kaleak. Beste kaleen orduak, berriz, igeri egin beharreko metroen arabera banatuko dira: 25-300 metro (10 minuturo), 325-600 metro (20 minuturo), eta 625-1.000 metro (ordu erdiro).
- ▶ Kale bakoitzeko igerilari bakar bat ariko da.
- ▶ Derrigorrezkoa izango da antolakuntzak egun horretarako bereziki ateratako txanoa erabiltzea.
- ▶ Igeriketa estiloa librea izango da, baina ezin izango da tximeleta estiloan aritu. Aletak baimendurik egongo dira, baina ez monoaletak.
- ▶ Gubxieneko adina sei urtekoa izango da.
- ▶ Gubxieneko distantzia 25 metro izango da, eta gehienekoa 100 metro.
- ▶ Igerilari bakoitzak egindako distantzia erregistro liburu batean bertatuko da.
- ▶ Izaera ez lehiakorra izango da.

## IZEN-EMATEA ▶

Izena emateko bi aukera daude: Kultur Etxera jo, edo internet bidez eskaera egin.

**Kultur Etxea.** 09:30etik 13:30era, eta 17:00etatik 19:00etara. 943 67 03 83.

**Internet bidez.** www.tolosa750.net webgunean.

**Eman beharreko datuak.** Izen-abizenak, adina, helbidea, posta kutxa, herria, igerian egin nahi den distantzia eta lehentasuneko ordua.

GAZTERIA ▶

## Goizean hasita askotariko ekintzak bihar Pako Egunean

Haurrei eta gaztetxoei zuzendutakoak izango dira; gehienak Pakon bertan egingo dituzte

I. ETXEBESTE

Tolosako Udaleko Gazteria Sailak eta Gazte Guneak antolatuta, Pako Eguna egingo dute bihar. Astebururo Gazte Topalekuan biltzen diren 13 eta 17 urte bitarteko gaztetxoek goizetik iluntzera bitartean izango dute herrian bertan bateko eta besteko ekimenetan parte hartzeko aukera, baina orain artean sekula Topalekura gerturatu ez direnei ere luzatu nahi izan diete antolatzaileek bihar Pakora agertzeko deia, guztiak elkarrekin ondo pasatzeko parada izango dutelako.

Goizean saskibaloia hirura eta aerobitona izango dituzte aukeran; eguerdian bazkaria Pakon bertan—euro baten truke— eta patinekin itzulia —Jurasiko parketiko eskuinaldeko bialera, Arrameleko zubira, Rondilla, Atadi eta Solana kaleetara, Plaza Zaharrera, Santa Maria plazara eta bueltan Jurasiko parkera— eta arratsaldean karaokea eta ping-pong txapelketa.

### Haurren jaia ere izango da

Baina gaztetxoek ez ezik, hurrek ere izango dute aukera bihar Gazteria sailak eta Gazte Guneak antolatutako ekintzetan parte hartzeko, haien artean ere antolatuta dute-lako jaia. Hori bai, bestelako ekimenak egingo dituzte 12 urtetik beherakoek. Goizera-ko aurpegiak margotzea, plastilinarekin eta lokatzarekin eskulanak egitea eta aulkaren jolasa egitea aurreikusitako antolatzaileek txiki-entzatzat, eta eguerdirako, bazkal aurretik, itzulia egingo dute haiek ere patinekin.

Helduen aldean, ezberdina izango da, ordea, egingo duten itzulia. Plaza Berritik abiatuko dira, eta Arostegietara, Korreo eta Agintari kaleak zeharkatu ostean Pakon bukatuko dute buelta. Egunari amaiera emateko askotariko ekintzak prestatu dituzte, bestalde: globoak haustea, zaku karrera, koskol apustua eta askari txikia, kasu.

ATLETISMOA ▶

# Domina ugari ekarri dituzte eskualdeko 22 atletak Arabatik

Euskadiko Txapelketan lehiatu berri dira eskualdeko infantil mailakoak bakarka eta ikastetxeka; lan ona egin dute denek



Erreleboetako podium-a: erdian, Gipuzkoako selekzioak, eta, ezkerrean, Hirukide ikastetxekoak. HITZA

IRATXE ETXEBESTE

Infantil mailako Atletismoko Euskadiko Txapelketa izan berri da Mendizorrotzan (Araba), eta bakarkako eta ikastetxeen arteko lanak epaitzeko balio izan du. Proba horretan jardun zuten eskualdeko hainbat gaztek, eta Tolosa CFko ordezkariek hitzetan, «emaitza ezin hobekak lortu zituzten gure atletek». Gipuzkoa osotik txapelketara sailkatu ziren gehienak eskualdekoak izan zirela aintzat hartzeko da, gainera, gutzira, Tolosaldeko 22 kirolarik hartu zutelako parte bertan.

«Bakarkako emaitzei begirata, Xabier Artieda aipatu behar dugu, urrezko hiru domina lortu baitzituen 80 metroan (9.82 segundo); 150 metroan (18.25) eta erreleboetan (39.5). Hura izan zen txapelketa osoan urrezko domina gehien lortu zituena. Horrekin, atleta tolosarrak urte osoko progresioa erabate finkatu du». Aipatzekoak dira, halaber, Joxemi Jauregik pisu jaurtiketan lortutako urrezko domina (13.10-eko jaurtiketarekin), 80 metroan erdietsitako zilarrezkoa (9.83) eta 4x80 proban lortutako urrezko Hirukide ikastetxeko taldearekin.

Urrea lortu zuten, baita ere, Ander Lopezek pertika jauzian

(2.50), Tamara Lozanok 3.000 metroko lasterketan eta Ander Gilek 80 metro hesietako proban «12.05-eko izugarriko erregistroarekin». Segundo batean hobetu zuen Gilek bere marka, eta segundo eta erdiko aldea atera zion bigarrenari. Erreleboetan ere urrea lortu ahal izan zuen Gipuzkoako selekzioarekin.

Bestalde, zilarrezko dominak lortu zituztenen artean dira Eneko Garin billabonatarra 1.000 metroko proban (2.59); Julen Zubizarreta tolosarra pertika jauzian (2.10) eta Alain Otaegi tolosarra pisu jaurtiketan. 12 metrotik gorako jaurtiketa eginda geratu zuen Otaegi Euskadiko azpitxapeladun, eta proba berean, laugarren sailkatu zuen Mikel Aierbe.

«Txabalina ere domina izan genuen», adierazi dute Tolosa CFko ordezkariek: «Kasu honetan brontzezkoa, Jon Ander Ugartemendiaren eskutik». 27 metroko jaurtiketa egin zuen kirolari gazteak. Era berean, Marko Alijostes tolosarraren lana ere aipatzeko dela nabarmendu dute haren entrenatzaileek, «infantil mailako lehen urtekoa izanda ere, jada lortu duela Euskadiko Txapelketara joatea, eta, gainera, podium-era igotzekotan egon delako». 1.45 metroko jauzia-

rekin, bosgarren sailkatu zuen Alijostes azkenean.

### Ikastetxeen artean ere bai

«Ikastetxeen arteko txapelketa ere jokatzen zen Gasteizen bakarkakoarekin batera, eta, hemen, probintzia bakoitzeko bi talde indartsuenak sailkatzen ziren. Proba horretako partaide genituen Hirukide ikastetxeko mutilak, eta, denen partehartze ezin hobearrekin, Euskadiko bigarrenak sailkatzea lortu zuten», esan dute Tolosa CFko arduradunek.

Miren Zubizarretaren mutilak bikain aritu ziren lehian, eta, denen artean, erreleboetan hirugarren postua lortu zuten Euskadiko Txapelketan, gainera, «ikastetxe guztien aurretik». Bigarren postua lortu zuten atletak honakoak dira: Joxemi Jauregi, Josu Anta, Jon Etxaide, Xabier Artieda, Aitor Falcon, Jon Ander Ugartemendia, Iker Epelde eta Julen Zubizarreta.

Azkenik, «selekzioen arteko sailkapenean esan behar da mutilen aldetik erraz irabazi zuela Euskadiko Txapelketa Gipuzkoako selekzioak; nesketan, aldiz, bigarren geratu zen, aurretik, Bizkaia, puntu baxerrena zuela». Tolosa CFko zori-ondurdu egin ditu kirolariak.

TXIRRINDULARITZA ▶

## Lan ona egin du Xabier Artolak Espainiako Ligan

Euskadiko selekzioak irabazi du Espainiako Pistako Liga, eta atzetik geratu dira Katalunia eta Murtzia. Tarragonan egin zuten sailkapen orokorra erabakitzeko azken proba, eta, horien artean, Xabier Artola tolosarra 3. izan zen 200 metroko proban; aipatzeko da, keirin-ean berak irabazi zuela, 11-663ko denbora eginda. Kanporaketako proban Mikel Gaztañagak irabazi zuen erraz, eta Javier Azkue laugarren izan zen; scratcht-ean, berriz, 3. postua lortu zuen. Haien taldekide Asier Maeztuk eta Mikel Gaztañagak erraz irabazi zuten amerikarrean, bi itzuliko abantaila atera zitelako gainerakoei. Guztien lan ona eginda irabazi du Euskadiko selekzioak, beraz.

TELEFONOAK ▶

### Larrialdiak. ((112)) Osasuna.

▶ **Alegialdea.** Osasun zentroa: 653212

▶ **Anoeta-Alkiza-Hernalde.** Medikua: 65 23 39

▶ **Asteasu.** Medikua: 692423

▶ **Baliarrain.** Medikua: 889003

▶ **Berastegi-Elduain.** Medikua: 683361

▶ **Bidegoian.** Medikua: 681134

▶ **Ibarraldea.** Osasun etxea: 672411

▶ **Ikaztegieta.** Medikua: 653329

▶ **Irura.** Osasun zentroa: 690720

▶ **Leitza.** Osasun zentroa: 948 510800

▶ **Orendain.** Medikua: 655595

▶ **Orexa.** Medikua: 682228

▶ **Tolosa.**

▶ Anbulatorioa, larrialdiak: 461111

▶ San Esteban: 006800

▶ Gernikako arbola: 006900

▶ Amaroako dispen.: 672637

▶ Asunzio klinika 675799 - 67 53 90 (larrialdiak)

▶ **DYA:** 672536

▶ **Gurutze Gorria:** 674888

▶ **Villabona.** Anbulat.: 006970

▶ **Zizurkil.** Aiztondo zerbitzua: 693930

### Garraioak.

▶ **Renfe:** 902 24 02 02

▶ Donostiako autobusa: 361740

▶ Tolosaldea bus: 650621

▶ Leitzarar autob.: 948 221015

▶ **Taxi:** 670420

▶ **Taxi (Leitza):** 608 873016

▶ **Besterik.**

▶ **Ertzaintza:** 538820

▶ **Tolosa-Udaltzaingoa:** 675858

▶ **Tolargi:** 650016

▶ **Iurramendi egoitza:** 670325

▶ **Tolosa gasa:** 675320

## LARRAUL ▶ GAZTERIA



Iaz Larraulen egin zen auzolandegian parte hartu zuen gazte taldea. HITZA

# Auzolanean aritzeko aukera gazteentzako

Herriko Erretoretxearen fatxada konpontzen eta margotzen ariko dira uztailean 15 eta 16 urte bitarteko gazteak

## ERREDAKZIOA

Aurtengo udan ere Larraulen auzolandegia burutuko da. Azkeneko bi urtetan bezala, Erretoretxearen fatxada konpondu eta margotzen jardungo dute gazteak. Hirugarren urtea izaki, XIX. mendeko eraikina horren hirugarren fatxadari egokitu zaio txanda. 15 eta 16 urtekoentzat da auzolandegia eta uztailean 4tik 17ra burutuko da.

Kutxako Gizartekintza eta Aranzadi zientzi elkarteak dira azken 10 urtetan Uda Gaztea izena duen auzolandegien antolatzaileak. Bertan, bi asteetan zehar gipuzkoar gazteek elkarlanean lan egiten ikasten dute, bizikidetzat landuz: auzolanean. Goizetan, proiektu tekniko bat gauzatzen dute, ingurumen kontserbazioarekin eta Gipuzkoako ondarearen berreskurapena gauzatzeko. Arratsaldetan aldiz, Aranzadiko adituen laguntzarekin hainbat aktibitate burutzen dituzte;

astronomia saioak, espeleologia, natur eta kultur interesguen ezagutza... eta beti gertatzen da dibertsiorako lekutxoaren bat ere, rafting, eskalada edo piraguismoa bezalako aktibitateak burutzeko. Hau guztia ingurumen eta natura gozatuaz, errespetatuaz.

Ingurumenarekiko gazteek duten sentsibilitatea dela-eta, Gipuzkoako naturaguneak berreskuratzeko ekintzak bultzatu dira. «Gaur egungo gazteak oso dinamikoak dira eta ingurumenak dituen arazoekin oso sentsibilizatuak, horregatik gure ingurumenaren eta ondarearen berreskurapena helburu dituen aktibitateak antolatu ohi ditugu. Bi helburu hauek lantzeko gogo biziz egon ohi dira, oso motibatuak, gainera gure inguru naturala berreskuratzeko gain lagun berriak egiten dituzte», dio Juanjo Gorriak, Kutxako Gizartekintzako aisiadun eta ingurumeneko arduraduna.

## Aukera anitza

Larraulgo auzolandegiaz aparte beste batzuk ere antolatu dituzte. 16 eta 18 urte bitartekoentzat Artikutzan, uztailean 4tik 17ra, ibilbide bat seinalizatu minusbalioetasunak dituzteentzat. Adin berdikoentzat,

Aiako Harrian, uztailean 18tik 31ra, bertako parke naturaleko mantentze-lanetan lagunduko dute. 18 eta 27 urte bitartekoentzat, Seguran, uztailean 18tik 31ra, XVIII. mendeko eraikin baten fatxada konponduko dute.

Aipatzekoa da, bestalde, aurren Aranzadi zientzia elkartearen praktikak egiteko aukera izango dela. Hainbat alor izango dira hautatzeko: botanika, entomologia eta zoologia, besteak beste.

Auzolandegia eta praktika horietan parte hartzea 110 euro kostatzen da, bi asteetako pentzio osoa eta ekintzak barne. Dagoeneko irekita dago izen emateko epea. Aurretik adierazitako adina izan behar da, hau da, 15 eta 27 urte bitartean. bestalde Gaztekutxa txartelaren jabe izan behar du interesatuak. Hilaren 13tik aurrera jakinaraziko zaie interesatuei lekuri egokitu zaion. Informazio gehiago nahi duenarentzat Kutxako edozein sukurtsaletan edo [www.kutxasocial.net](http://www.kutxasocial.net) webgunean eskuratu ahaliko du. Telefono zenbaki bat ere bada: 943 46 61 42. Kutxako Gizartekintzak, izen-ematea martxoan du 15 eta 27 urte arteko gazteek auzolandegietan eta udako praktikan parte hartu dezaten.

## ZIZURKIL ▶ HEZKUNTZA

## Hizkuntzak lantzeko beste modu bat

San Millan eskolan ikasleek prestatutako jolasak burutu dituzte astean zehar



Atzo arratsaldean egin zuten hitza pasa jolasaren une bat. I. GARCIA

## I. GARCIA

Aste honetan ekitaldi berezia antolatu dute Zizurkilgo San Millan eskolan. Egutero, arratsaldetan, jolas ezberdinak egin dituzte eta eskolakoekin gain, senitartekoekin ere parte hartu dute. «Lau hilabeteko lanaren ondorioa da», azpimarratu dute irakasleek. «Urtero, ikasturte amaieran, ikasle eta irakasleok aparte, guraso eta beste senitartekoekin parte hartzen duten ekitaldi irekia antolatzen dugu. Eta ekitaldi berezi horrek baliatzen digu, aurretik guztia prestatu behar izatea eta hizkuntzarekin lotutako gaiak jorratzea».

Horrela, joko ugari antolatu dituzte: asmakizunak, hitza pasa, ezetz asmatu... Eta horriek prestatzeko gai asko landu dituzte: definizioak, galderak egitea, antonimoak eta si-

nonimoak, artikuluen jenero erderaz, konkordantzia... «Euskara eta gaztelanai lantzeko ez ditugu testuliburuak erabiltzen, baizik kontsulta liburuak erabiliz —hiztegiak, entziklopediak, monografikoak...— hizkuntzak lantzen joaten gara», nabarmendu dute San Millango irakasleek.

Gainera, ekitaldi berezi hauek antolatzea, motibazio berezia ematen die ikasleei. «Jolas guztiak ikasleek antolatu dituzte: galderak pentsatu, definizioak bilatu... Horrek lan asko eskatzen du eta prozesu horretan asko ikasten dute. Horregatik ekitaldiak bere garrantzia badu ere, senitartekoak eskolara gerturatzeko zeregin den lana da garrantzitsua». Astelehenean jai txiki bat egingo dute asteari amaiera emateko.

## ANOETA ▶

## Sanjoanetarako dantza ikastaroa izango da

San Joan zortziko dantza, fandango eta arin-arin ikastaroa egingo da herrian, haur (LH2tik aurrera), gazte eta helduentzat. Ekainaren 14tik 23ra egingo da ikastaroa, astelehenean ostiralera, arratsaldean. Ordua finkatzeko Udalak deituko die parte hartu nahi dutenei. Ikastaroen prezioa 8 eurokoa da eta kontu korrontetik kobratuko dira. Izen-ematea udal bulegoetan, ekainaren 14a arte.

## ANOETA-IRURA ▶

## Anoeta eta Irurako ikastolen festa etzi

Urtero legez, Irurako Ikastolak eta Anoetako Herri Ikastolak 2004-2005 ikasturtearen festa egingo dute etzi. Egutegian zehar hainbat ekintza antolatu dira: ibilaldi neurtua, kalejira, eskulanean erakusketa, emanaldiak, bazkaria, sari banaketa eta denontzako jokuak. «Gogotsu oso ari gara denok, guraso, langile, irakasle eta ikasle azkeneko ukituak ematen», azaldu dute antolatzaile lanetan dihardutenek.

**Espereintzia handia duen ileapaintzailea behar da**

Orduetegi interesgarria  
943 67 19 34

AMEZKETA ▶

**Bihar egingo dute betizu jatea Ugarte auzoan**

Urtero legez, Amezketakoa Ugarte auzoko biztanleek betizu jatea antolatu dute, udaren gerturatzearrekin bat eginez. Bihar izango da Ugarteko pilotalekuan, 14:00etatik aurrera. Izena emateko epea agortu zen eta jende andana bilduko da ospakizunean, 25 euroko txarrelak erosi ostean. Txekorra txingarretan erreko dute. Janariari gain, musika ere ez da faltako.

ALEGIA ▶

**Eskularen erakusketaren azken txanpa**

Bihar amaituko da Alegiako Inaxio Begiristain Kultur Etxeko aretoan eskulan ikastaroan parte hartu duten ikasleen eskularen erakusketak bisitatzeko epea. Orduetgia goizez 10:30etik 12:30era eta arratsaldean 16:00etatik 20:00etara izango da. Bertan olioizko margoak, egurrezko apainketak, beirazko apainketak eta keramikak ikusi ahalko dira, besteak beste.



Kultur Etxean ikusgai dagoen erakusketaren zati bat. N. LATABURU

GAZTELU ▶

**Gaur 'Viaje a Tokio' filma ikusgai Kontzejun**

Gaur Yasujiro Ozu zinemagilearen *Viaje a Tokio* filma izango da ikusgai, arratsaldeko 19:30etik aurrera, Gazteluko Kontzejun. Filma Japonian zuzendu zuen 1953. urtean. Zahar bikote baten istorioa kontatzen du, nekazal bizitza utzi eta Tokiara bidaiatzen duena, bere seme-alabak ikustera. Beraien egoaldian belaualdien arteko gatazkaren berri jasoko dute.

PILOTA ▶

**Final-laurdenetan dira HITZA Txapelketako norgehiagokak**

Jabier Zabala eta Gorka Arandia antolatzaileek orain arteko ibilbidea «ezustekorik gabe garatu» dela adierazi dute

NOELIA LATABURU

II. HITZA Pilota Txapelketako hasierako ligaxka amaitu berri da eta final-laurdenetako neurketen atarian aurkitzen da txapelketa. Hori dela eta, hainbat herritar antolatzaileekin hitz egin du HITZAK. Benjamin, alebin, infantil, kadete eta etorkizuneko mailak ari dira parte hartzen Alegian, Albizturten, Adunan, Bidegoian eta Tolosan, hurrenez hurren.

Astero partiduak antolatzeaz eta zuzentzean arduratzen direnek «pozik daude» txapelketarekin. Orain arte «maila oso ezberdineko pilotariak» ikusi ahal izan dira txapelketan, Javier Zabala Adunako neurketen arduradunaren esanetan. «Adin hauetan indarra eta urte bateko aldea ikaragarri nabaritzen da pilotarien artean», baina final-laurdenetarako dagoeneko «onenak» sailkatu dira. Alebin mailan ere arazoa berdina da, Gorka Arandiak, Albizturko antolatzaileetako batek, azaldu duenez. Gainera, «talde batzuk ere ez dira orekatsuek izan, izan ere, batzuetan okerrago aritzen direnak batera egon dira».

Orokorrean, ez da ezustekorik izan txapelketan. Gipuzkoa eta Nafarroa aldeko pilotari gazteak dira partaideak. Maila guztietan gaztetxoek «gogo

handiarekin» jokatzeko dute eta partida guztiak, salbuespenak salbuespen, antolatuta zegoen «bide zuzenetik garatu dira». Kirola honekiko zaletasuna txikitatik datorkie gaztetxoek, bi antolatzaileen aburuz, eta mota honetako txapelketak lagungarriak dira zaletasun hau areagotzeko. «Gipuzkoako gaitz nontzeko pilotariak aurkari izatea oso ona da beraiatzat, pilotari sendo bat aurrez-aurre izateak beti ere esfortzu handiagoa suposatzen duelako», adierazi du Zabalak.

Pilotako partidu hauek ez dute jarraitzaile gehiegi izan «lehen ligaxkak ez baititu jarraitzaileak piztu». Guraso eta ahaideak izan dira, bada, gehienetan tokian tokiko pilotalekura hurbildu diren baka-

rrak. Dena den, «orain hasten da zirraragarriena».

**Maila berria, bereziena**

Bigarren edizioa da aurtengoa eta maila berri bat osatu dute, berezien maila, profesionalek pasatzeko dauden pilotarietara. Ekainaren 18an, larunbata, Tolosako Beotibar pilotalekuan jokatuko dira maila honi dagozkion finalerdiak. Bikote hauek ariko dira aurrez aurre: batetik, Retegi-Arruti eta Lasapraiz pilotarietako osatzen dituztenak; bestetik, Belloso-Oteiza eta Apeztexea-Xabier Arrastoa bikoteak.

Maila guztietako finalerdiak partiduak ekainaren 25ean eta 26an jokatuko dira, goizeko 10:00etatik aurrera.



Jabier Zabala, Adunako partiduen arduraduna. NOELIA LATABURU

**NORGEHIAGOKAK ▶**

**GAUR**  
**Albiztur (alebinak, final-laurdenak, 19:00etan).**  
Apeztegia-Arizmendi/ Jauregi-Arrue; Maiza-Manterola/ Luzia-Manzisor; Etxeberria-Arozena / Eskudero-Jauregi; Jaunarena-Olano / Matxinea-Arratibel.

**BIHAR**  
**Aduna (infantilak, final-laurdenak, 16:00etan).**  
Bereau-Madariaga/ Urbietia-Urbietia; Aizpuru-Etxaniz/ Ansotegi-Zinkunegi; Apeztexea-Aranburu/ Otaegi-Iraola; Jaunarena-Vera/Sukia-Arzelus.  
**Alegia (benjaminak, final-**

**laurdenak, 16:00etan).**  
Ontsalo-Elizalde/ Egiguren-Garziarena; Aizpuru-Arrue/ Ibarzabal-Tolosa; Altuna-Otamendi/ Otaegi-Saralegi; Gil-Sagastibelza/ Mangas-Ibargoien

**Tolosa (etorkizunekoak, finalerdiak, 10:00etan).**  
Loiarde-Errarte/ Elurbe-Garmendia; Renobales-Larrazabal/ Beitia-Iriarte.

**EKAINAK 15 (ASTEAZKENA)**  
**Bidegoian. (kadeteak, finalerdiak, 19:00etan)**  
Ropon Tellekxearen aurka eta Narbarte Iturriozen aurka.

tolosaldeko eta leitzaldeko **hitza**

**Praktikak hilabetez HITZAn uztailean edo irailean**

**Kazetaritza, Euskal Filologia eta Komunikazioa lizentziatutako Tolosaldeko eta Leitzaldeko ikasleei zuzendua**

Curriculum-a bidali helbide hauetara:  
Araba etorbidea, 5 - atzea • 20400 TOLOSA  
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info  
**(ekainaren 20a baino lehen)**

**Gxiri, Mirri eta Gxiribifon Gxirre**

**Mirri-Bel**

Ruxtoni S.L.  
605 726 843  
943 424 803

guxirri@euzkabet.net

www.guxirri.es www.guxiribifon.com

IBARRA ▶ KIROLA

# Gipuzkoako II. Mailako Aizkolari Txapelketa igandean

Xepla elkarteak 25. urteurrenagatik antolatuta, 12:30ean izango da plazan

IÑIGO TERRADILLOS

Igandean 12:30ean Ibarako San Bartolome plazan aurten hamar urte betetzen dituen Gipuzkoako II. Mailako Aizkolari Txapelketa izango da. Aurten 25 urte betetzen dira Xepla elkarteak sortu zenetik, eta urtean zehar antolatzen ari den ekitaldietako bat da igandean ikusleko aukera izango den aizkolari txapelketa.

Hamabi izango dira nor baino nor ariko diren aizkolariak: Iñaki Aierbe ataundarra, Javier Aranbarri (Zumarraga), Juan Manuel Erasun (Zizurkil), Jose Manuel Esnaola (Zegama), Peio Etxeberria (Hondarribia), Arkaitz Iriarte (Urrestilla), Jesus Mari Lasa (Legorreta), Jesus Mari Mujika (Ibarra), Joseba Otaegi (Zizurkil), Unai Otaño (Ibarra), Jose Mari Telletxea (Oiartzun), Jose Felix Zubizarreta (Zarautz). Eta burutu beharko duten lana, berriz, kanardiko 4 enbor eta 60ko 2 enbor izango da. Lan hau egiten lehenak, hau da, txapeldunak, lehen mailara igotzeko aukera izango du, eta gainera, txapela eta garaikurra jasoko ditu. Halaber, Ibarako Udalak oroigarri bana emango die aizkolariari.

Bestalde, hasi baino ordubete lehenago egurrak neurtu, lotteen zozketa eta partaideen ordenaren zozketa egingo da. Sarrera, berriz, ez da ordaindu beharko, baina mahai batzuk jarriko dituzte jendearen borondatea eskatzeko. Xepla elkartetik jendea animatu nahi dute, «ikuskitzen aparta izango baita eta aizkolariak jendearen animoak eta txaloak eskertuko baitituzte».

Eskualdeko lau aizkolari, bi ibartar eta bi zizurkildar ariko dira lehian igandean eguerdian, eta HIRZAK euren iritziak jaso nahi izan ditu.

**JOSEBA OTAEGI**  
ZIZURKIL

«Lehenengo aldia da eta maila handia dago»



«Ahal dena egiten saiatuko naiz. Izan ere, larunbatean Urrezko Aizkolariaren finalean ariko naiz eta hori ere oso garrantzitsua izango da. Bi



Tolosako zezen-plazaren mendeurrenean jokaturako herri kirolen erakustaldia. L.MONTES

probetan antzerako lana egin beharko dut, beraz entrenatzeko ongi etorri zait. Bestalde, niretzat lehendabiziko aldia izango da Gipuzkoako II. Mailako Aizkolari Txapelketan parte hartuko dudana, eta bertan ariko diren aizkolariengatik oso maila altua izango da. Erasun, Elorriaga eta Otaño direla gogorrenak esango nuke».

**JESUS MARI MUJIKA**  
IBARRA

«Iaz baino hobeto prestatu naiz aurten»



«Pasa den urtean baino maila hobean aurkitzen naiz. Plazetan urduri jartzen den horietakoa naiz, eta kasu

honetan bezala nire herrian bada are gehiago, baina igandean urduritasun horiek uxatzen badituzte lan polita egin dezakedala iruditzen zait. Postu on bat lortzeko borrokatuko dut. Iaz ia ez nuen entrenatu eta alde horretatik gehigo aritu naiz aurten. Egiten dudana lanagatik astirik ez badut ere, denbora egin ahal izan dut aizkolari aritzeko. Aurten pasa den urtean baino aizkolari gehiago izango gara lehian, eta guztiak ere oso ondo prestatuak dau-

de. Erasun iruditzen zait gogorrena, eta baita Otaño ere».

**JUAN MANUEL ERASUN**  
ZIZURKIL

«Lan ona egitea da garrantzitsua»



«Dudan apustuegatik ari naiz gogor entrenatzen, eta ondo etorriko zait txapelketa, lan txukuna egiten badut gorputza ondo dudala ikusiko dudalako. Lan ona egitea da garrantzitsua. Bestalde, lan motza eta azkarra da, eta ni iraupenerako prestatuago nago. Beste aizkolarietan Otaño ikusten dut egokiak».

**UNAI OTAÑO**  
IBARRA

«Lanik txukunena egiten saiatuko naiz»



«Nahiko ondo ikusten dut neure burua, baina igandean ikusi beharko da ea zer gertatzen den. Lehenengo da mailaz igotzeko aukera izango duena eta denek lortu nahi dute, baina lan zaila da hori, hala ere ahalik eta lanik txukunena egiten saiatuko naiz. Dezente entrenatu dut azken aldian eta prestatuak nagoela esan daiteke. Erasun eta Elorriaga izango direla aurkari gogorrenak iruditzen zait».

LIZARTZA ▶

**Haimar Altuna lizartzarra gose greban aurkitzen da**

Meaux-en dauden hiru euskal presoekin modulo berean jartzea ukatu zaie

ERREDAKZIOA

Frantziako Meaux herriko espetxean hiru euskal preso politiko aurkitzen dira, eta horietako bat Haimar Altuna lizartzarra da, hain zuzen. Euskal Presoen Kolektiboko kide izanik, elkarrekin modulo berean egoteko eskubidea aldarrikatu dute.

Bakarrik jarraitzen dutela, eta beraien eskaria kontuan hartu ez dela ikusirik, gose grebari ekitea erabaki dute. Lizartzarren kasuan, bederatzigarren eguna du gaurkoan gose greban. Halaber, modulo berean jartzeko eskaria egiteaz gain, 2.000 kilometroko distantzia egin eta gero senide eta lagunek izaten dituzten «ordu erdiko bisita akumulatzea» ere eskatzen dute hiru euskal presoekin.

Hau guztia ikusirik, «argi geratzen da beste behin, euskal preso politikoei eta euren senideek jasaten duten egoera larria», adierazi dute preso lizartzarren senide eta lagunek.

▶ **TOLOSALDEKO HITZA.INFO**

**Eztabaida.** Baserri munduak beherakada izan duela esan daiteke, eta ondorioz, herri kirolek hasieran zuten esanahia galduz joan dira. Hala ere eskualdean zenbait gaztek txapelketetan maila ona ematen dihardute. Herri kirolen jarraitzaile al zara? Nola ikusten duzu kirol hauen etorkizuna?



Sega apustuan. I.TERRADILLOS

## IBARRAKO UZTURPE IKASTOLAK

### BI IRAKASLE BEHAR DITU

- 1.Haur Hezkuntza eta ingelerako titulua edo magisteritza atzerriko hizkuntzan espezializatua. EGA agiria Balioestetuko da: Artigal metodoa ezagutzea.
- 2.Haur Hezkuntza titulua eta musikako titulua. EGA agiria Balioestetuko da: Psikomotritate ikastaroak

Curriculumak jasotzeko epea: ekainaren 17a

**UZTURPE IKASTOLA. Egialde, 2- 20400 Ibarra**  
Tf:943/671299; E-maila: Ibarra@ikastola.net

HERRI KIROLAK ▶

# Saralegi-Zelailuzek eta Otaegik bihar dute Urrezkoan finala

Jon Kanflankak Euskal Herriko Segar Txapelketan bihar du saioa; Areso, Suitzako Monsang-era joana da sokatirara

J. ASTIBIA/I. GARTZIA

Herri kirol erakustaldirik izan bada, eta gainera gure herrietako kirolariak protagonista direla, asteburu honetan izanen da, zalantzarik gabe. Izan ere, Urrezko Harri-jasotzaileen eta Aizkolarian, bietan bertako finalista bana ariko dira: Mikel Saralegi leitzarra eta Joseba Otaegi zizurkildarra, hurrenez hurren; Euskal Herriko Segarien Txapelketan, bere lehen saiakera egingen du Jon Kanflanka leitzarrek, besteak beste, Erasun zizurkildarrarekin batera; eta azkenik, sokatiran, Areso taldea atzerriara joana da, Monsang-era (Suitza), bertako sariketara batera.

Esaterako, beraz, Saralegik Zelailuze lagun duela. Azpeitiko kiroldegian Urrezko Harri-jasotzailearen txapela du jokoa, aurrez aurre izanen dituzten Aimar Irigoien-Izeta III.a bikotearekin. «Gustura» aritu da orain arte leitzarra, eta biharkoan irabazteko «dena eman beharra» dagoela adierazi zuen. Burruka eta ikuskizuna ziurtatuta daude.

Jaialdi berean erabakiko da ere gazteen mailako banakako Urrezko Aizkolaria. Kasu honetan Joseba Otaegi zizurkildarrak Igertza izanen du arerio, bere bikotea orain gutxi irabazi duten binakakoan. «Bera da favorito», azaldu dio HITZARI: «Azkar aterako da eta hasieratik abantaila hartuko du, baina nik nire lanari eutsi behar diot». Biek hala biek, ordea, jarraitzaileen indar eta animorik ez dute faltako.

Bestalde, Nuarbe eta Getxo-ekin batera, Aresoko sokatirara taldea Monsang-era (Suitza) joana da, bertako taldeak 30 urte betetzen dituela eta, antolatutako duten sariketan parte hartzeraz, zehazki, 600 eta 640 kilotan ariko dira hara joan diren 11 tiralari aresoarrak.

Segalari berria ere bada eskualdean. Bihar hasiko den Euskal Herriko Txapelketan egingen du lehen saioa, Jon Kanflanka leitzarrek, guztira parte hartuko duten 12tatik, talde berean egokitu diren Goenaga eta Goioagarekin, Amurrioren, 12:00etatik aurrera.

JON KANFLANKA ▶ SEGARIA

## «Ikasten ari naiz eta probatzera noa»

Jon Kanflanka gazte leitzarrek segar ikasi nahi zuen eta lehengo azaroan hasi zen horretan. Bihar izanen du jendaurreko lehen saioa eta Euskal Herriko Segalari Txapelketan egingen ere.

**Nolatan hasi zinen segan?**

Beti gustukoa izan dut, baina sekulan ez nuen eskutan segarik hartu, eta ikasi nahi nuela esan nion nire lehengusu Joxe Jabierri eta erakutsiko zidala esan eta horrela. Nire asmoa zen ikastea, eta noizbait prestatuz gero edo, zerbait eginge.

**Noiz hasi zinen, bada?**

Lehengo azaroan, lehengusuarrekin, eta Pello anaiarekin ere bai. Txapelketetan sega handiak erabiltzen omen zirela eta, galdezka hasi eta Joxe Ramon Aia hondarribiarrarekin egin genuen topo: hark lagunduko zigula, eta aurrera.

**Non ikasi duzu?**

Hendaiaiko hondartzan, ne-guan ez baitzen belarrik. Segar,



JAIONE ASTIBIA

hondar-azalean sartuz, posturak ikasiz. Belarrean orain aritu naiz, 10-12 bat alditan; baina, 30 minutuko saio luzerik ez dut egin. Ikusiko dugu.

**Txapelketa nola ikusten?**

Ez nuen uste hain azkarra izanen zenik. Probatzera noa eta ahal dudana egingen dut. Ikastera noa, hurrengorako.

**Laguntzaileak ere badituzu.**

Bai, sei biltzaile, zorroztaile eta aholkularia. ◀

LEITZA ▶ IKURRINA



Hiru ikurrak herriko plazaren alde batean jarri dituzte. JAIONE ASTIBIA

## Ikurrinari buruzko herri galdeketa 19an

Gaur gauerditik aurrera hasiko da informazio kanpaina Leitzan, hilaren 19an «Leitzako udaletxean ikurrina, bai ala ez?» galderarekin egingen duten herri galdeketa inguruan. Horrela, gaur hasi eta hurrengo zortzi egunetan, hurrengo 17ko gauerdia arte ere, herriko talde desberdinek, beren iritzia plazaratuko dituzte gai horren inguruan eta 19an herritar guztiak berena ematera deituta daude, ohiko hautes-lekuetan eta ordutegiarekin egingen ere. Eta egunean bertan emanen omen dute emaitzen berri ere. Ikurrinaren presentziari buruzko galdeketa hau, lehengo urteko azaroaren 24ean alkatetzako aginduz, ikurrina udaletzeko balioetik kendu ondoren sortutako egoeraren ondorioz doaz egitera. Aipatzekoa da, bestalde, atzo goizean Elordineko petrilaren parean, ikurrina, Leitzako ikurra eta Nafarroako jarri zituela Udalak, masta banetan.

LEITZA ▶

## Haur Eskolan matrikulatzeko tenorea da jada

Gaurtik hasi eta hurrengo 16a arte, hurrengo osteguna, alegia, Haur Eskolan matrikulatzeko egiten ariko dira. Dagoeneko apirilera izena eman eta hurrengo ikasturterako zerrendetan dauden haurrek egin behar duten tramitazioa da honako hau. Horretarako, jakinarazi dutenez, «gurasoen IRPF delakoa eraman aitorpen agiriaren fotokopia» eta «kuoten ordainketak egiteko erabiliko den banketxeko kontu korrontea eta titularra ageri diren orriaren fotokopia» eraman behar omen dira eta gero, han bertan beharrezkoa den agiria bete.

LEITZA ▶

## Liburutegian udako ordutegia hurrengo astetik

Dagoeneko udako beroak ere heldu direla eta, batez ere ikasle jendeak ere oporrak hartzen dituela kontutan hartuta, Leitzako herri liburutegian ere, ordutegiaren aldaketa egingen dute. Hurrengo astelehentik aurrera, hilak 13, eta irailaren 12a arte, goizez irekiko dute: 8:30etik 14:30era, astelehentik ostiralera, egunero 6 orduz, ohikoa den moduan. Eta, noski, betiko zerbitzuak erabiltzaile guztien eskura izanen direlarik. Jakin denez, langilearen oporraldian zerbitzua itxi beharrean aurkituko dira, ordezkorik jartzerik ez omen dute lortu eta.

hitza

# txokoa<sup>lagunen</sup>

## 'Lagun ezazu HITZA laguntzen'

▶ HITZARI 42 euroko diru laguntza ematen dioten harpidedunek HITZA egunero jasotzeaz gain **ABANTAILA EZBERDINAK** izango dituzte; harpidedunen txartela izango dute eta, besteak beste, HITZAK egiten dituen zozketetan parte hartzeko aukera izango dute.

▶ HITZAren laguntzaile izan nahi baduzu, deitu **943 30 43 46** telefono zenbakira.

Tolasaldeko eta Leitzaldeko HITZA laguntzen duten harpidedunen artean zozketak astero



**AGENDA ▶**

**DEIALDIAK**

**Tolosa.** Ugarola tailerretako langile ohiek bazkaria dute bihar Benta-Aundi jatekxan. Izen-ematea, bertan.  
**Villabona.** Santiotako pala, frontenis eta eskuz binakako txapelketetarako izen-ematea gaur amaituko da, Behar Zana elkarteak.

**IPIUIN KONTAKETAK**

**Aduna.** Maite Franko herriko liburutegian 18:00etan.  
**Lizartza.** Nerea Herrarte udalekxan 17:30ean.  
**Orexa.** Nerea Herrarte Kultur Gelan 18:30ean.

**MUSIKA**

**Irura.** Mission 439 diskotekan Dj Txetxu, Dj Arra eta Dj Rober Jazz&Dj Niko. 23:30etik 06:30era.  
**Tolosa.** Selam eta Inoren Ero Ni Bonberenean 22:30ean.

**SANJOANAK**

**Anoeta.** San Joan zortziko dantza, fandango eta arinarin ikastaroan izen-ematea udalekxan.  
**Tolosa.** Nesken eskopetariaren konpainian atera nahi duenak 600 56 16 71 telefonora dei dezala.  
**Tolosa.** Kabi Alai eskopetari konpainian atera nahi duenak Beatriz dendan eman dezake izena.  
**Tolosa.** Sanjoanetako Koadrilen Eguneko bazkarirako txartelak ostiraletan 19:00etatik 21:00etara eta larunbatetan 11:30etik 13:30era egongo dira salgai Orbela tabernan 18 eurotan. Informazio gehiago: 943 65 23 84 (Eli).

**ZINEMA**

**Gaztelu.** *Viaje a Tokio.* 19:30ean Kontzejun.  
**Tolosa.** Un rey en La Habana. Leidor zineman 19:30ean eta 22:30ean.

**GUARDIAKO FARMAZIAK**

**Gaur**  
**Tolosa.** Santamaria, I. Nafarroa etorbidea 2. 943 65 46 10.  
**Leitza.** Plaza, M. Elbarren 36. 112.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

# Udako kolore biziak

**TOLOSALDEA-LEITZALDEA ▶** Kamiseta berriak atera ditu salgai HITZAK udarako; neurri eta kolore desberdinetakoak; egoitzan edo San Joan azokan eros daitezke

**ERREDAKZIOA**

**N**eurri, kolore eta estilo desberdinetako kamiseta koloretsuak atera ditu HITZAK udari begira. Eguraldia lagun, udan eta oporteran erabiltzeko modukoak.

Inoiz baino eskaintza zabalagoa da aurtengoa. Neurri aldetik, haur, gazte eta helduentzako moduko kamisetak daude salgai, hasi haurrentzako tailetatik eta S, M, L eta XL tailetara artekoak.

Kolore eskaintza ere inoiz baino zabalagoa da aurren: arrosa, berdea, laranja, gorria, zuria eta beltza. Aurretik zeuden koloreez gain, udako kolore biziak ere jarri ditu HITZAK bere kamisetetan.

Modelo desberdinak daude gainera, mauka motzekoak, maukarik gabekoak eta tiradunak.



Kolore eta modelo hauez gain, beste batzuk ere badira, neurri desberdinetakoak, adin guztientzat. HITZA

Prezio aldetik berriz, denek prezio bera izango dute, 15 euro, edozein kolore, modelo edo neurri izanda.

HITZAREN kamiseta dotore hauek erosi eta, aldi berean, HITZA lagundu nahi dutenek Tolosako egoitzan eros dezakete egunero, goiz eta arratsaldez. Horrekin batera, datorren aste-

ko sanjoanetako azoka berezian ere egongo dira salgai Trianguloan jarriko den postuan.

Aipatu behar da iaz kamiseta hauek izan zirela irabazle urtero Ondarroan Zapato azule egunean egiten den kamiseta

lehiaketan bere diseinu polit et modernoagatik. Meritu handiko saria da hau, kamiseta egileek beraiek aukeratzen dutela

kontuan hartuta. Aurten ekainaren 25ean izango da Zapato Azule festa Ondarroan eta HITZako kamisetak izango dira.

**AGURRAK ▶**



**URTE ASKOAN**  
Eneko Etxeberria (Gaztelu-Zaldibia). Gaur urtebete. Zorionak eta muku handi bat denon partetik.



**URTE ASKOAN**  
Arkaitz Balda Usandizaga (Alegia). Gaur 2 urte. Zorionak ebekoen partetik.



**URTE ASKOAN**  
Aitor Gonzalez (Ibarra). Gaur 10 urte. Zorionak Ane, aita eta amaren partetik.



**URTE ASKOAN**  
Gaizka Mujika (Abaltzisketa). Gaur 5 urte. Ondo pasa! Amona Rosarioren partez.



**URTE ASKOAN**  
Beñat Luloaga Zabala (Berrobi). Gaur 25 urte. Zorionak eta muku handi bat Oihanaren partetik.

**HITZA,**  
zorion agurren tartea

HITZAren egoitzetara: Araba etorbidea, 5 beheko TOLOSA Udalezko bulegoa LEITZA

Mesedez, argazkia bi egun lehenago ekarri. Mila esker!

txapelketa 05

**hitza**  
etorkizuniko en  
FINALERDIAK

Loiarre-Errarte  
Elurbe-Garmendia  
Renobales-Larrazabal  
Beitia-Iriarte

Ekainak 11  
TOLOSAKO  
BEOTIBAR  
pilotalekuan

Antolatzailea:  
AURRERA-SAJAZ PILOTA ESKOLA  
Laguntzaileak:  
Adunako Udala / Bidegongora Udala /  
Aldizkaria Udala / Alegria Udala /  
Tolosako Udala EROSKI / ERDUJ /  
PASABAN / DWA / REVIGLASS /  
LAEX / AKER / FRONTON JATEKIA